



Arartekoaren 2023R-3204-23 Ebazpena, 2023ko abenduaren 21ekoa. Horren bidez Ermuko Udalari honako gomendio hau egiten zaio: bete dezala Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen urtarrilaren 20ko 5/2023 ebazpena eta erantzun diezaiola erakunde kexagilearen eskaerari.

Aurrekariak

1. Arartekoak tramitatzeko onartu zuen herritar batek *Asociación Alianza contra la corrupción* elkartearen izenean aurkeztutako kexa. Bertan adierazten zuen ez zegoela ados Ermuko Udalak ez erantzutearekin eta informazio publikoa ez ematearekin.

Zehazki, kexagileak adierazi zuen 2022ko azaroaren 15ean idazki bat aurkeztu zuela Ermuko Udalean, eta horren bidez hainbat informazio eta dokumentazio eskatu zuela informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatuz.

Administrazio horrek informazio publikoa eskuratzeko eskaerari emandako erantzunarekin ados ez zegoenez, kexagileak azaldu zuen Alianza contra la corrupción elkarteak erreklamazio bat aurkeztu zuela Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean.

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, bere ahalmenen esparruan, erreklamazio hori izapidetu zuen, eta 2023ko urtarrilaren 20ko 5/2023 Ebazpena¹ eman zuen.

Aipatutako ebazpenak zati batean baietsi zuen *Alianza contra la corrupción* elkarteak aurkeztutako erreklamazioa, eta, bigarren dispositiboan, Ermuko Udalari eskatu zion gehienez ere 10 eguneko epean eman diezaiola erakunde kexagileari eskatutako informazioa, 11., 12. eta 13. oinarri juridikoetan ezarritakoaren arabera.

Kexagileak azaldu duenez, geroago, ebazpenean ezarritako epealdian informazioa eman ez zenez, Udalera jo zuen 2023ko apirilaren 18an eta IPSEBren ebazpena betetzeko eskatu zion.

Hala ere, Udalak ez zion erantzun.

2. Kexan azaldutako gertaerak aztertuta, Arartekoak laguntza-eskaera bidali zion Ermuko Udalari, jakin nahi baitzuen zergatik ez zitzaizkion eman *Asociación Alianza*

¹<https://www.legegunea.euskadi.eus/garrantzi-juridikoko-dokumentazioa/5/2023-ebazpena/webleg00-contfich/eu/>



contra la corrupción elkarteari eskatutako dokumentazioa eta informazioa, IPSEBren 5/2023 ebazpenak xedatu zuen bezala.

3. Geroago Ermuko Udalaren erantzun-txostena jaso zen Arartekoaren erregistroan. Bertan Ermuko Udalak adierazten zuen ez datorrela bat IPSEBren 5/2023 ebazpenaren oinarri juridikoetako interpretazioarekin, eta horren aldeko argudio juridikoak azaltzen zituen².

Arartekoari helarazitako txosten horretan aipatzen diren argudioak IPSEBren ebazpenean ere agertzen dira, zeren eta Ermuko Udalak *Asociación Alianza contra la corrupción* elkarteari 2022ko abenduaren 14an informazio publikoa eskuratzeko sarbidea ukatzeko eman zion erantzun bera baita.

Gainera, Arartekoari emandako erantzunean Udaleko osoko bilkuraren erabaki bat ere txertatu zen, hain zuzen ere Ermuko Udalak 2021eko abenduaren 21eko osoko bilkuran hasiera onetsitako udal aurrekontuaren aurka aurkeztutako alegazioak ez onartzeko eman zen erabakia. Osoko bilkuraren erabaki hori *Asociación Alianza contra la corrupción* elkarteak 2021eko udal aurrekontuaren aurka aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna izan zen. Beraz, kexa honetan ez da aztertu behar Ermuko Udalak alegazio haiei emandako erantzuna.

Arartekoaren ebazpen honen xedea da aztertzea zergatik Ermuko Udalak ez duen bete IPSEBren 5/2023 ebazpena, zeina *Asociación Alianza contra la corrupción* elkarteak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko asmoarekin 2022ko azaroaren 15ean toki erakunde horri aurkeztu zion eskaerak eragin baitu.

4. IPSEBren 5/2023 ebazpenaren aurrekarietan azaltzen denez, elkarte horrek eskaera aurkeztu ondoren Ermuko Udalak ez zuen alegaziorik aurkeztu bere jarrera juridikoa argitzeko edo azaltzeko. Hain zuzen ere, Batzordeak honetara azaldu du nola egin ziren erreklamazioaren izapideak:

“2022ko abenduaren 22an, Batzordeak erreklamazio hori bidali zuen Ermuko Udalera, elektronikoki, azken horrek, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun baliioduneko epean, gaiari buruzko txostena egin zezan eta hura ebazteko garrantzitsutzat jotzen zituen agiriak aurkez zitzen. Jakinarazpen hori baztertutzat jo zen, hamar egun natural igaro zirenean eskura jarri zenetik haren edukia ikusi gabe. Ondorioz, prozedurarekin jarraitu zen. Beti hartu behar dira kontuan informazioa eskuratzeko mugei eragin diezaieketen aldagaiak edo eskatutako informazioa emateko egon daitezkeen zailtasunak. Hori kontuan hartuta, adierazi behar dugu komenigarria zatekeela Udalaren

²<https://www.legegunea.euskadi.eus/garrantzi-juridikoko-dokumentazioa/5/2023-ebazpena/webleg00-contfich/eu/>



irizpidea ezagutzea, hark judizio-elementu garrantzitsuak eman baitzitzakeen hemen planteatutako kasuari buruz erabakitzeke. Nolanahi ere, batzorde honi lagundu ez izana deitoragarria izan arren, Udalak alegaziorik ez egiteak ez du eragozten aurkeztutako erreklamazioa ebaztea”.

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Azaldu diren aurrekariak kontuan edukita, kexa honen muina da Ermuko Udalak ez duela ezer egin IPSEBren ebazpenaren aurrean eta ez diola erantzun elkarte kexagileak informazioa IPSEBk ezarritako epealdiaren barruan zergatik ez zaion eman jakiteko aurkeztutako idazkiari.

2. Erakunde kexagileak aurkeztutako eskaerari ez erantzutea dela eta, Arartekoak uste du administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio-prozeduraren bidez bideratu behar dituztela beren eginkizunak, administratuen eskubideen eta interes publikoaren beraren berme gisa. Administrazio-izapideak egoteko eta herritarrari behar bezalako erantzuna emateko bermea Espainiako Konstituzioan bertan dago jasota. Hala, prozedurak arautzen dituzten arauak zorrotz betetzeko betebeharrak administratiboa, espedientea osatzen duten izapide guztiak ahalik eta gehien zainduz, zuzenean dator [103. artikuluko](#) konstituzio-agindutik, hau da, interes orokorrak objektibotasunez zerbitzatzen dituen administrazio eraginkorrerako agindutik, Legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez jardungo dena, jarduketa publikoa Legeak ezarritako administrazio-prozeduraren mende jarritz artikulatzen baita. Gogorazi behar da eraginkortasunaren printzipioak (Espainiako Konstituzioaren 103.1. artikulua) administrazio publikoei eskatzen diela gizarteak eskatzen dizkien itxaropenak modu arrazoizkoan bete ditzatela. Horren barruan, administrazioaren betebeharra da partikularrek aurkezten dizkieten eskariak eta erreklamazioak berehala ebaztea; izan ere, administratuek administrazio-ebazpenen oinarriak ezagutzea ezinbestekoa da bere legezko eskubideak eta interesak era egokian defendatu ditzan.

Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (hemendik aurrera APEL) hezurramitzen du aurreko paragrafoetan azaldutakoa: batetik, ezartzen du administrazio publikoek nahitaez ebatzi behar dituztela aztertzeke aurkezten zaizkien gaiak, eta, gainera, horiek ebazteke epeak zehazten ditu.

Hala, testu horren [21.1 artikulua](#) (ebazteko betebeharrari buruzkoak) honako hau xedatzen du:



“1. Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta.

Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharretik salbuetsita daude prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari komunikatzea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak”.

Aipatutako artikulua xedatzen du ebazteko epea ezin dela izan hiru hilabetetik gorakoa eskaera egiten denetik zenbatzen hasita.

Administrazioak ezin du ebazteko betebeharra saihestu, nahiz eta araudian ezarritako epea igaro eta, beraz, administrazio-isiltasuna gertatu.

Hori APELen [24.3 artikulutik](#) ondorioztatzen da. Beraz, administrazio prozeduraren araudian ezarritako betebeharrak betetzen dituzten eskaerak, erregistro ofizial batean aurkezten badira, behar bezala izapidetu eta ebatzi behar dituzte administrazioek ordenamenduak horretarako ezarritako epearen barruan.

Interesdunek aurkezten dituzten eskaerei eta errekurtsoei administrazio-isiltasunarekin erantzutea legezko mandatuen kontrakoa da eta kaltegarria da herritarren egoera juridikorako, eragozpen nabarmenak sortzen dizkielako eta desabantaila argian uzten dituelako, eztabaidatutako gaiari dagokionez duten uzia behar bezalako bermekin defendatu ahal izateko, bai alderdi materialei dagokienez, bai denborari eta prozedurari dagokienez.

Halaber, horrez gain, administrazioaren isiltasunak kalte egindako pertsonak ez dakite zeintzuk diren administrazioak beren uziaren aurkakoa den erabakia errekurritzeko jakinarazi beharreko oinarritzko elementuak, besteak beste, bidezko errekurtsuak, horiek zer administrazio organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkien eta errekurtsuak aurkezteko epeak.

Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan aztertu ditu administrazio-isiltasuna eta administrazio publikoen jarduerarik eza. Adibide gisa, hara zer dioen 2014ko uztailaren 11ko 3431/2014 epaiaren zortzigarren oinarri juridikoak³:

³ [ECLI:ES:TS:2014:3431](#)



“Formulada una determinada solicitud a la Administración por persona legitimada al efecto (y no hay la menor duda que es el caso en el supuesto de autos, como aclara la propia sentencia impugnada en su FD 4º), dicha persona tiene derecho a obtener una respuesta de aquélla y a que por tanto la Administración se pronuncie sobre su solicitud (artículo 42 LRJAP -PAC), sin que pueda consiguientemente permanecer inactiva durante tiempo indefinido, como si no se hubiese planteado ante ella la solicitud antes indicada.

Así lo vino a entender acertadamente la resolución judicial impugnada; y ciertamente tal exigencia puede deducirse incluso, no sólo de nuestro propio ordenamiento interno, sino también del derecho a la buena administración reconocido por la normativa europea (artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: con proyección general, no obstante lo establecido también por el artículo 51 de dicha Carta, porque resulta difícil establecer y explicar un distinto nivel de enjuiciamiento, según se aplique o no el Derecho de la Unión Europea por los operadores en el ámbito interno)”.

Epai horretan adierazitakoaren ildotik, aipatu behar da herritarrek administrazio onerako eskubidea dutela, eta horrek berekin dakar administrazio publikoek administrazio prozedurarako eskubidea bermatu beharra.

Eskubide horrek esan nahi du herritarrek eskatuta hasitako prozeduren kasuan administrazio publikoek honako hauek egin behar dituztela, gutxienez: aurkezten zaizkion idazkiak jaso, bidezko prozeduran ofizioz bultzatu eta aurkeztutako gai eta eskaera guztiei zentzuzko epealdi baten barruan modu kongruentean eta arrazoituan erantzun, aurrean azaldu den bezala.

Betebehar hori eduki arren, Ermuko Udalak ez zion erantzun elkarte kexagileak 2023ko apirilaren 18an aurkeztutako eskaerari. Bertan kexagileak berriz ere adierazten zuen informazio publikoa eskuratu nahi zuela IPSEBren ebazpenean ezarri zen bezala.

3. Administrazioak erantzuten ez zuela ikusirik, Arartekoak gauza bat bakarrik azaltzeko eskatu zion: zergatik ez zuen eman IPSEBren 5/2023 ebazpenean adierazitako informazioa.

Horri erantzuteko, Ermuko Udalak argudio juridiko batzuk bidali zituen idazki batean. Bertan adierazten zuen ez zegoela ados gardentasuna kontrolatzen duen organoak emandako ebazpenarekin. Hala ere, IPSEBk erreklamazioaren izapideak egin zituen artean Udalak ez zion helarazi organo horri bere jarreraren aldeko informaziorik, dokumentaziorik ez irizpide juridikorik.

Beste alde batetik, IPSEBren ebazpenean, oinarri juridikoetan, erabilitako eskubidearen irismena azaltzen zen eta eztabaidan zeuden eskubideen balorazioa





edo haztapena egiten zen: Batzordeak ebatzi zuen lehentasuna zeukala informazio publikoa eskuratzeko eskubideak eta ezin zitzaiola aplikatu mugarik edo, bestela, informazio teknikotzat jo zitekeela datuen babeserako eskubidea ez urratzeko. Nolanahi ere, informazio publikoa 10 egunetan emateko formula ezarri zuen.

Toki erakundearen jardun ezak eta informazioa emateko epealdia ez betetzeak eragin zuten kexagileak idazkia aurkeztea 2023ko apirilaren 18an. Udalak ez zion erantzun, aurrean azaldu den bezala. Dokumentazioa IPSEBren ebazpenean ezarritako epealdian ez aurkeztea hura ez betetzea da.

4. Honetara helduta, aipatu behar da IPSEBren ebazpenek administrazio-bidea agortzen dutela eta haien aurka gauza bat bakarrik egin daitekeela: administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan.

Arartekoak ez daki Ermuko Udalak administrazioarekiko auzien bidera jo zuenez IPSEBren ebazpena ezesten duela adierazteko, baina uste du horixe zela bidea erakusteko ez zegoela ados gardentasunaren arloko organoak emandako doktrina-interpretazioarekin.

Izan ere, gardentasunaren arloko legeek ez diete betearazpen-indarririk eman gardentasuna kontrolatzen duten organoen ebazpenei, horien bitartez administrazio bat informazioa ematera behartzen denean, eta ez dute ezartzen ebazpen horien jarraipena eta betearazpena bermatzen dituen manurik.

Horrenbestez, Arartekoak uste du IPSEBk bere eginkizunak bete zituela. Hau da, aztertu zuen ea elkarte kexagileak eskuratu nahi zuen informazioa interesgarria zen herritarrentzat tokiko botere publikoen kontrol demokratikorako eta administrazioaren arduradun publikoek kontuak emateko.

Beraz, IPSEBren ebazpenean ezarri zen lehentasunezkoa zela informazioa zabaltzeko interes publikoa eta, horren egintza juridikoak nahitaez bete behar ez direnez ere, Arartekoaren ustez Ermuko Udalak bat egin behar luke gardentasun-printzipioarekin, kontuan edukita zer ebatzi duen IPSEBk APELen [39.4 artikuluan](#) ezartzen denarekin bat etorriz:

“39. artikulua. Ondorioak.

(...)

4. Administrazio publikoetako organoek bete egin behar dituzte gainerako administrazio publikoetako organoek beren eskumena baliatuz emandako arau eta egintzak, nahiz eta mendekotasun hierarkikorik ez izan haien artean edo beste administrazio batekoak izan”.





Ebazpena betetzea lagungarria izango litzateke IPSEBren eginkizunen jardun legitimoa errespetatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen [141.1.a\) artikuluan](#) ezartzen denari jarraikiz, administrazio publikoek elkarri lagundu beharra aintzat hartuta.

4. Azkenik, Arartekoak ohartarazi nahi du balitekeela IPSEBk ematen dituen ebazpenak aintzat ez hartzearen ondorioz herritarrak ez fidatzea administrazioaren jardunarekin eta erakundeetatik urruntzea.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (hemendik aurrera ETEL) ezartzen duenez, udalerrietako zuzendaritza politikoa eta gobernu bat etorri behar dira lege horrekin eta honako printzipio honekin: *“Gardentasunaren printzipioa, etika publikoaren garapena eta gobernu onaren printzipioetara egokitzea”* ([4.2.h artikulua](#)).

Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari esker herritarrek administrazioaren jarduna eta botere publikoen kontu-ematea aztertu ditzakete. Beraz, IPSEBren laguntza-eskaerari ez erantzutea eta beraren ebazpena ez betetzea ez datoz bat gardentasun-printzipioarekin.

Izan ere, IPSEBren eginkizun nagusia da bermatzea herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabil dezaketela, interes publikoa asetzeko. Horretarako, zenbait ebaluazio-prozesu aplikatzen ditu herritarrek eskatzen duten informazioa garrantzitsua den ala ez eta gobernu-jarduna aztertzeko zabaldu beharrekoa den ala ez zehazteko.

Arartekoaren ustez gardentasuna, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gobernu onerako arauak ekintza politikoaren funtsezko ardatzak direla, eta horiekiko konpromisoari eutsiko bazaio, ezinbestekoa da erakundeek lankidetzan jardutea, bai eta IPSEB bezalako organoen eginkizunak errespetatzea ere, herritarrek parte hartzea bultzatzen duen eskubide bat babesteko sortu baitira, jakiteko eskubidea.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Getxoko Udalari:

GOMENDIOA

Bete dezala Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen urtarrilaren 20ko 5/2023 ebazpena eta erantzun diezaiola elkarte kexagilearen eskaerari.

